



Intxaurrondo Zaharreko jai batzordeko hainbat kide, Intxaurrondo kalean. **BEÑAT PARRA**

Emakumeen trontzarekin datoz Intxaurrondo Zaharreko jaiak

Ate joka daude Intxaurrondo Zaharreko jaiak. Asteburu honetan berotuko dituzte motorrak auzoa apainduz, eta ostegunean hasiko dira jaiak bere horretan. Ez dira faltatuko ohiko jarduera arrakastatsuak, eta berritasun bat edo beste ere prestatu dute.

Beñat Parra Rodriguez

Intxaurrondok omen ditu munduko beste toki bakar batek ere ez dituen gauza batzuk, Txapelako jauregia eta bere harraska ederra, auzoko abesti ezagun eta maitatuak dioenez. Jaiak ez ditu aipatzen abestiak, baina, akaso, aipatu beharko lituzke, baten faltan, hiru jai baititu auzoak: sanjoanak, Intxaur jaiak ekainaren bukaeran eta Intxaurrondo Zaharreko jaiak irailaren hasieran.

Jai batzordeko kide Amaia Arrazolak azaldu duenez, urtarrilean hasiziren jaiak prestatzen, ohiko legez. Jai batzordean ez dira asko, baina Arritxu Larrañaga kideak nabarmendu duenez, auzoko eragile eta norbanako ugarik hartu ohi dituzte ardurak jaietan: «Herri kirolak bizpahiru pertsonaren artean antolatzen dituzte, txokolate jana Artzak Orteok elkarteak antolatzen du, haurrentzako jolasak Intxaurgu-

neak, eta abar. Hau da, jai batzordekoak talde motorra gara, nolabait, baina kanpotik ere hartzen dira ardurak, eta jaietan bertan ere jende gehiagoren laguntza izaten dugu txandak egiteko, eta abar».

Trontza, berritasun nabarmena

Intxaurrondon ez ezik, hiriko hainbat txokotan ikusi ahal izan dira uda honetan jaietako larunbateko trontza lehiaketako kartelak, aurtengo berritasun nagusia baita: «Duela hamar bat urte ere antolatu genuen, hamar bat bikoterekin. Aurten berreskuratu dugu, eta espektatiba handiak daude, ia hogeitarik bikotek hartuko baitugu parte. Beldur pixka bat ere ematen du, ez pentsa!», azaldu du Larrañagak.

Azken urteotan, 500 kiloko harriarekin giza proba egin dute Lizardi kaleko aldapan gora, eta aurten hala-kerik egingo ez duten arren, haurren eskutik ikusi ahalko da giza proba Intxaurrondo kalean: «Urteotan, saiatu gara haurrak sartzen herri kiroltako jardueretan, eta Maldapan [Lizardiko giza proba] irteera informalagoak egin dituzte, erakustaldi gisara. Baina, aurten, 105 kiloko harria egin diete

beraiantzako propio, eta bi haur talde arituko dira lehian». Espazio publikoaren erabilera gizonak bereganatu ohi dute sarritan, baina, oraingoan, emakumeena eta haurrena izango da Intxaurrondo Zaharreko jaietako herri kiroletan. «Eta gizonak txosnako txanda egitera, antolatzen eta babesa ematen egotea tokatzen zaie», gaineratu du Larrañagak.

Herri kiroletakoak, ordea, ez dira izango jaietako berritasun bakarrak: «Kioskokoek reggae kontzertu bat antolatu dute larunbaterako, eta, horrela, Txaparreneko parkean jai gune txiki bat edukiko dugu egun horretan. Bestalde, aurten barraka batzuk eta janari furgoneta bat etorriko dira», azaldu du Arrazolak.

Espazio publikoaren erabilera gizonak bereganatu ohi dute, baina, oraingoan, emakumeena eta haurrena izango da

Bestalde, iaz sortutako Erramunstroaren pertsonaia auzoan errotu dadin, haren inguruko kondaira batzuk landu dituzte, eta bihar, auzoa erramu tradizionalarekin apainduko duten egunean, pertsonaia agertuko da: «Aurten, bigarren jarraian, modu herrikoian egingo dugu erramua, Erramu Eguna ospatuz. Asmoa da haurrak ohitura horretan sartzea, eta hor ere agertuko da Erramunstroa», nabarmendu du Larrañagak.

Auzoa, gogoz

Urteroko legez, auzotarrak jaiak iristeko irrikaz ikusten dituzte jai batzordekoek, baina jaiak urte hasieratik daude presente askorentzat, Larrañagak dioenez: «Ilusioa egiten dit urte hasieran jendeak idazten didanean galdetuz ea urte horretan noiz izango diren jaiak, lanean oporrak hartzeko. Hor ikusten da badagoela jendea jaiak oso kontuan dituen». Bada, unea heltzear da; atera zapiak armairutik, lotu lepoan eta disfrutatuta jaietz! ●



LARUNBATA 31

Erramu eguna

11:30 • Gaztetxeko plazan

Jaietako erramuaren prestaketa.

13:30 • Zulo Zahar elkartean

Bazkaria.

17:00 • Gaztetxean

Umeentzako animazioa eta aurpegi margoketa.

OSTEGUNA 5

17:00-20:00 • Erdikoa taberna parean

Alkatetzarako hauteskundeak.

20:00 • Erdikoa taberna parean

Jaien hasiera ekitaldia:

- Pregoia.
- Alkatearen izendapena.
- Intxaurrondotarraren sariaren banaketa.
- Txupinazioa eta festara! (auzoko abesbatza).

20:30

Sardina jana.

22:00 • Zulo Zahar elkartean

Linbo txapelketa eta mojitoak.

OSTIRALA 6

Mozorro eguna

17:00 • Karpan

Haur ikuskizuna Larrotxene Kultur Etxearen eskutik: *Zirika Zirkus*. Ondoren, buruhandiak eta txokolate jana.

17:30 • Luistarretan

Meriendika auzokide berriei ongi etorria emateko.

17:30 • Bilindo tabernatik hasita

Txarangapoteoa Dotake txarangarekin. Etorri mozorrotuta!

21:00 • Gaztetxeko plazan

Herri afaria: salda, txanpiak, entsalada, lasaña, postrea eta kafea. Aurrez, 8 euro eta bertan 10 euro.

23:00 • Auzoan zehar

Zezensuzkoa.

23:30 • Karpan

Kontzertuak: The Badmintones eta La Fulana DJ-a.

LARUNBATA 7

10:00-13:00 · Karpan

Haur jolasak Intxhaurgunearen eskutik (0-5 urteko haurrentzat).

Etorri zure marradun kamisetarekin eta zapiarekin, pirataz mozorrotuko gara eta.

- Aurpegi eta ezpata txapelketa.
- Altxorraren bila.
- Elektro kale bira.
- Jolasak, jolasak eta jolas gehiago.
- Hamaiketakoa.

12:30 · Karpan

Zaporeaken aldeko ekitaldia, bertsolariekin.

13:00 · Intxaurrondo kalean

Marmitako txapelketa solidarioa, Zaporeakekin elkartzasunez.

14:30 · Karpan

Herri bazkaria (15 euro): tomate entsalada, marmitakoa, postrea eta kafea.

15:00-22:00 · Txaparreneko parkean

Bombadil Sound System: Gorka Dub, Frontline Steppas eta LiliBat Sound, Kioskoaren eskutik.

17:00

Buruhandiak eta txokolata jana.

18:00 · Intxaurrondo kalean

Trontza txapelketa: 20 bikote nor baino nor gehiago arituko dira txapelaren bila. Tartean, giza proba: auzoko gaztetxoek 105 kiloko harriari tiratuko diote, zeinek plaza gehiago egin.



21:00 · Gaztetxeko plazan

Parrillada: saltxitxak eta hanburgerrak.

23:00

Zezensuzkoa.

23:30 · Karpan

Kontzertuak: Nikotina, Alargun Beltzak eta Azkura DJ-a.

IGANDEA 8

11:30 · Gaztetxeko plazan

Truke azoka Saretuzen eskutik. Ekarki erabiltzen ez dituzun gauzak eta eraman sorpresa bat trukean.

13:30 · Karpan

Paella prestaketa herrikoia.

15:00 · Karpan

Paella jate herrikoia.

16:30 · Karpan

Mus txapelketa.

17:00

Ur entzierroa.

17:30 · Gaztetxeko plazan

Apar festa.

18:30 · Intxaurrondo kalean

Zinten jokoa, Artzak Ortzeeen eskutik.

19:00

Jaien amaiera ekitaldia:
 - Erramunstroaren kondaira.
 - Erramunstroaren erreketak.
 - Amaierako traka.

OSTEGUNA 14

12:00 · Salestarretan

Meza, urtean zehar hildako bazkideengatik, Artzak Ortzeeok eta Aitona-Amonen Etxeak antolatuta.

14:00

80 eta 90 urte artean betetzen dituzten bazkideen omenezko bazkaria. Ondoren, dantzariak.



Gora Intxaurrondo Zaharreko jaiak!

943-54 88 72 · 688-64 98 02

Intxaurrondo kalea, 54, beheka 3, 20015 Donostia
 artatxikibiogunea@gmail.com



HEGOA



Euskara-ingeles murgiltzea



Gozatu festak!

Baratzategi Kalea, 19, Intxaurrondo
 20015 Donostia
 943-29 70 23 - info@hegoa.eus